



## EL COAVN NO VERIFICA INFORMES FINALES DE GESTIÓN DE RESIDUOS

Según acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno de este Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro celebrada en Donostia-San Sebastián, el pasado 28 de enero de 2016, te informo de que el COAVN no realiza la verificación del Informe Final de Gestión de Residuos (IFGR). Asimismo te indico los Colegios Profesionales que sí efectúan la verificación para que puedas informar a tus clientes.

### ¿Qué se demanda de los Colegios Oficiales en cuanto a verificación del IFGR?

El **Real Decreto estatal 105/2008**, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición tiene por objeto establecer el régimen jurídico de la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de fomentar, por este orden, su prevención, reutilización, reciclado y otras formas de valorización, asegurando que los destinados a operaciones de eliminación reciban un tratamiento adecuado, y contribuir a un desarrollo sostenible de la actividad de construcción. Para ello, indica una serie de **obligaciones al productor y otras al poseedor** de los residuos de construcción y demolición (RCD).

Igualmente, define el régimen de control de la producción, posesión y gestión de los RCD, permitiendo, a las Comunidades Autónomas, regular la exigencia de una fianza u otra garantía financiera equivalente, vinculada al otorgamiento de la licencia municipal de obras al productor de residuos.

El **Decreto vasco 112/2012**, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, aplicable sólo para obras localizadas en el País Vasco, establece, entre las **obligaciones que se imponen a la persona productora de RCD**, la de incluir en el proyecto de la obra un estudio de gestión de los residuos de construcción y demolición, **firmado por una persona profesional competente y visado por el Colegio profesional correspondiente**. Igualmente, es **obligatorio para las personas productoras de residuos y materiales de construcción generados en obras mayores**, presentar ante el Ayuntamiento el **informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición**.

Respecto a la acreditación de la correcta gestión de los residuos y de los materiales de construcción procedentes de obra mayor, el artículo 6 del citado Decreto indica que **la persona productora de los residuos y de los materiales de construcción deberá aportar un informe firmado por la dirección facultativa de la obra**, que deberá elaborarse de acuerdo con el modelo que se especifica en el anexo III de este Decreto, y que **deberá ser verificado por una entidad independiente acreditada por el órgano ambiental**, sin perjuicio de lo que se establece en la Disposición Transitoria Única (Error de transcripción ya que se refiere a la D.T. Segunda). La Disposición Transitoria Segunda de este Decreto 112/2012 dice, sobre la verificación de los IFGR, que **“En tanto no se disponga de un sistema de acreditación de entidades independientes encargadas de verificar los informes finales de gestión previstos en el artículo 6 de este decreto, serán los Colegios Oficiales correspondientes quienes realicen tal cometido**, salvo que dichos informes sean elaborados por entidades acreditadas en materia de suelos contaminados”.

Escasos cuatro meses después, el Gobierno Vasco aprueba el **Decreto 212/2012**, de 16 de octubre, por el que se **regulan las entidades de colaboración ambiental (ECA's)** configurándolas como “piedra angular de los procedimientos ambientales” y **atribuyéndoles la realización de actuaciones de verificación, validación y control de actividades**.

Sin embargo, el posterior **Decreto 407/2013**, de 10 de septiembre, de suspensión temporal del Decreto 212/2012 **deja en suspenso la intervención de las ECA's** bajo el argumento siguiente: “La aplicación de las disposiciones contempladas en el citado Decreto 212/2012, de 16 de octubre ha puesto de manifiesto la necesidad de reflexionar sobre el alcance real de **la necesidad de disponer de estos mecanismos para un funcionamiento más ágil de la administración ambiental y, por tanto, de hacer recaer en los promotores de los distintos procedimientos regulados en la normativa sectorial medioambiental el peso económico de dichos mecanismos**”.

Como consecuencia de esta suspensión, que también afecta al IFGR, el artículo 2 del citado Decreto dice que “Al amparo de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Única del Decreto 112/2012, de 26 de junio, **dichos informes se podrán verificar por los Colegios Oficiales** correspondientes salvo que dichos informes sean elaborados por entidades acreditadas en materia de suelos contaminados”.

Existen por lo tanto, múltiples incógnitas en los términos en los que se hace recaer esta tarea a los Colegios Oficiales. Por una parte, el Decreto de suspensión es temporal, con la incertidumbre que origina en cuanto a su duración, esto es, ¿durante cuánto tiempo van a tener los Colegios Profesionales esta función? Por otra, la verificación es una función distinta a la de visado, ya que requiere una comprobación de que los IFGR tienen el contenido señalado en el Anexo III del Decreto 112/2012, lo que significa contrastar los datos indicados en el informe con los que se presentan en el Estudio de Gestión de Residuos y admitir o desestimar las justificaciones de variación en las cuantificaciones finales que se señale. Además requiere de una evaluación de la gestión realizada en atención al destino. Todo ello con su correspondiente costo de infraestructura y responsabilidad.

Tras las reuniones celebradas con los responsables del Gobierno Vasco en materia de control de residuos de construcción y demolición, y su negativa al planteamiento de establecer un convenio de colaboración con los Colegios para llevar a efecto esta tarea, tal y como posibilita la Disposición Adicional Quinta de la Ley de Colegios Profesionales, la Junta de Gobierno del COAVN ha acordado no realizar la verificación del IFGR, e informarte sobre los Colegios Oficiales que sí están dando ese servicio como son el Colegio de Aparejadores de Bizkaia, el Colegio de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos de Euskadi, el Colegio de Ingenieros Industriales de Bizkaia, el Colegio de Aparejadores de Gipuzkoa y el Colegio de Ingenieros Industriales de Gipuzkoa, a quienes se pueden dirigir tus clientes para la verificación de los IFGR.

En cualquier caso, y como siempre, tienes a tu disposición tanto la Junta de Gobierno como el personal de COAVN para resolver cuantas dudas te surjan al respecto.

Recibe un afectuoso saludo,

Matxalen Acasuso Atutxa, Decana - Dekanoa

## EHAEO-K EZ DITU HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO AZKEN TXOSTENAK EGIAZTATZEN

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Donostian 2016ko urtarrilaren 28an egindako Gobernu Batzarrean erabakitakoaren arabera, jakinarazten dizut EHAEOk ez duela Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostena egiaztatzen. Halaber, jakinarazten dizut zeintzuk diren egiaztapen horiek egiten dituzten Elkargo Profesionalak, zure bezeroei informazioa eman ahal izateko.

### Zer eskatzen zaie Elkargo Ofizialei HKATEren egiaztapenari dagokionez?

Eraikuntza-eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko **Estatuko 105/2008 Errege Dekretuak** xede du eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenerako eta kudeaketarako araubide juridikoa ezartzea, haien prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena eta beste balorazio-mota batzuk sustatzeko (ordena horretan), eta ezabapen-lanen xede izango direnak tratamendu egokia jaso dezatela bermatzeko eta eraikuntza-jardueraren garapen iraunkor bati laguntzeko. Hori dela eta, **zenbait obligazio ezartzen dizkie eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizleari, batetik, eta hartzaileari, bestetik**.

Halaber, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpeneko, jabetzako eta kudeaketako kontrol-erregimena definitzen du, eta autonomia-erkidegoei ahalbidetzen die obretarako udal-lizentzia hondakinen ekoizleari ematearekin batera fidantza edo beste finantza-berme baliokide baten derrigortasuna arau dezatela.

Eraikuntza-eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen **ekainaren 26ko 112/2012 euskal Dekretuak**, Euskadin egindako obretarako bakarrik aplikagarria denak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen **persona ekoizleari ezartzen zaizkion betebeharren artean**, obra-proiektuan eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa-azterketa bat egitea barne hartzen du, **profesional aditu batek sinatutakoa eta dagokion Elkargo Profesionalak onetsitakoa**. Halaber, obra handietan sortzen diren eraikuntza-hondakinen eta -materialen **persona ekoizleek udal honetan nahitaez aurkeztu behar dute eraikuntza- eta eraispen-materialen eta hondakinen kudeaketako azken txostena**.

Obra handiaren eraikuntza-hondakinen eta -materialen kudeaketa zuzena egiaztatzeko, Dekretuaren 6. artikulua kezakazten du **eraikuntza-hondakinak eta -materialak ekoizten dituen pertsonak obraren eskumeneko zuzendaritzak sinatutako txostena aurkeztu beharko duela**, Dekretu honen III. eranskinak zehazten duen ereduaren arabera prestatua eta **ingurumen-organoak akreditatutako erakunde independente batek egiaztatua**, Xedapen Iragankor Bakarrean zehaztutakoari kalterik egin gabe (transkripzio-akatsa, Bigarren Xedapen Iragankorari egiten baitio erreferentzia). 112/2012 Dekretuaren Bigarren Xedapen Iragankorak Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostenaren egiaztapenari buruz honela dio: **“Dekretu honen 6. artikuluan aurreikusitako kudeaketako azken txostenak egiaztatu behar dituzten erakunde independenteek akreditazio-sistematik ez daukaten bitartean, dagokien Elkargo Ofizialek beteko dute egiteko hori**, baldin eta txosten horiek lurzoru kutsatuetan akreditazioa duten erakundeek prestatzen ez badituzte”.

Lau hilabete eskas beranduago, Eusko Jaurlaritzak **urriaren 16ko 212/2012 Dekretua** onartu zuen; horren bidez, Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak arautzen dira, “ingurumen-prozeduren funtsezko ardatz” moduan itxuratuz eta haiei jardueren egiaztatze-, baliozkotze- eta kontrol-jarduerak egotziz.

Baina, horren ostean, 212/2012 Dekretua behin-behinean indarririk gabe uzten duen irailaren **10eko 407/2013 Dekretuak Ingurumen Lankidetzarako Erakundeen esku-hartzea eten egiten du**, argudio honen pean: “Urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan aurreikusitako xedapenen aplikazioak agerian utzi du **ingurumen-administrazioaren funtzionamendu azkarrago baterako mekanismo horiek edukitzeko, eta, horrenbestez, mekanismo horien pisu ekonomikoa ingurumeneko sektore-araudian araututako prozedura ezberdinen sustatzaileei egotzeko beharra zenbaterainokoa den hausnartu behar dela**”.

Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostenari ere eragiten dion etete horren ondorioz, Dekretuaren 2. artikulua dio “Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren Xedapen Iragankor bakarrean jasotakoaren babesean, dagokien **Elkargo Ofizialek txosten horiek egiaztatu ahal izango dituztela**, baldin eta lurzoru kutsatuetan akreditazioa duten erakundeek prestatzen ez badituzte”.

Horrenbestez, zalantza asko daude zeregin hori Elkargo Ofizialei zer baldintzatan egotzen zaien jakiteko. Batetik, eteteko Dekretua behin-behinekoa da, eta horrek ziurgabetasuna sortzen du iraupenari dagokionez; hau da, zenbat denboran beteko dute Elkargo Profesionalek zeregin hori? Bestalde, egiaztatzea eta ontzat ematea bi funtzio ezberdin dira; izan ere, egiaztatu behar da Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostenek 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean jasotakoa betetzen dutela, eta, beraz, txostenean jasotako datuak Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterketan aurkezten direnekin egiaztatu behar dira, eta aipatzen diren azkeneko kuantifikazioetan egindako aldaketen justifikazioak onartu edo ukatu ere bai. Gainera, xedearen arabera egindako kudeaketa ebaluatu behar da. Hori guztia dagokion azpiegitura-kostuarekin eta erantzukizunarekin.

Eusko Jaurlaritzaren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kontrolaren arloko arduradunekin bildu eta zeregin hori aurrera eramateko Elkargo Ofizialekin lankidetzarako hitzarmen bat ezartzeko plangintzari ezezkoa eman ditela ikusita, Elkargo Profesionalek Legearen Bosgarren Xedapen Osagarriak jasotakoari jarraiki, EHAEOren Gobernu Batzarrak erabaki du Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostenaren egiaztapenik ez egitea, eta jakinaraztea zeintzuk diren zerbitzu hori ematen duten Elkargo Ofizialak, hots: Bizkaiko Aparejadore Elkargoa; Euskal Herriko Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniarien Elkargoa; Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargoa; Gipuzkoako Aparejadoreen Elkargoa eta Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargoa. Zure bezeroek haiengana jo dezakete Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txostenak egiaztatzeko.

Edonola ere, eta beti bezala, zalantzarik izanez gero, bai Gobernu Batzarra bai EHAEOko langileak zuri laguntzeko prest daude.

Jaso ezazu agur batega,